

GAZTEAK, LAN DUINA ETA MIGRAZIOAK

ESCAPE ROOMA

HELBURUA

Jarduera honetan, bizipenetan oinarritutako metodologia ludiko baten bidez (Escape Roomak), kide diren herrietako gazteek gazte migratzaileek dituzten zailtasunekin lotutako erronkak gainditu beharko dituzte; jatorrizko herrialdean hasi, eta Nafarroara iritsita, Lan Duina lortzen saiatzen diren arte.

ESCAPE ROOMA HASI AURRETIK

1. Bakea eta Elkartasuna Fundazioaren eta Ferminen eta Soniaren (Escape Roomaren diseinatzaileak) aurkezpenak.
2. Escape Room honen helburua da lau oztopo gainditzea, zeinen bitartez gazte migratzaileek Lan Duina topatzeko zailtasunak ezagutuko baitituzue.
3. Oztopo bakoitza gainditutakoan, mezu bat jasoko duzue. Gorde ezazue, Escape Roomaren amaierako atalerako beharko baituzue.
4. Taldeak banatu eta probak azaldu.

ERRONKAK

KUTXEN PROBA

PROBLEMATIKA: Hizkuntza ez ezagutzea eta talka kulturala.

SARRERA: Gazte migratzaileak xede herrialdera heltzen direnean oztopo ugari egin behar diete aurre, hizkuntzari edota talka kulturalari esaterako. Arauak, balioak, ohiturak inguratuta daude eta horiek guztiak arrotzak zaizkie. Zailtasun ugari dituzte eta zaila egiten zaie komunikatzea edota bertakoekin elkar ulertzea.

Arazo honi aurre egiteko beren azalean jarri beharko zarete eta ezkutuko mezuak argitu beharko dituzue.

PROBAREN GARAPENA:

MUNDUKO ARGIAren giltza aurkitu.

Giltzarrapo bat irekiko dute giltza horrekin, zeinaren barruan, zenbaki bat desfizatzeko proba topatuko baitute. Sinboloen eta braille sistema erabilia bigarren giltzarrapo irekiko dute. Horrek bi erruletetako hirugarren bat, bata bestearen barruan, eta azken esaldira iritsiko dira hala.

MEZUA: **LAN- ETA GIZARTE-ESKUBIDEEN DEFENTSA.**

HITZ EGINEZ, KONTUZ ETA HARREMANETAN.

PROBLEMATIKA: **Migratzaileen bazterkeria eta ikusezin bihurtzearekin lotutako zailtasunak.**

SARRERA: Gazte migratzaileek aurreiritziei, bazterkeriari eta ikusezin izateari egin behar diete aurre. Oztopo hau gainditzeko aurreiritziak alboratu, eta taldean aritu beharko zarete. Dena ez da dirudiena.

PROBAREN GARAPENA:

Proba honetan taldean aritu beharko dira, izan ere, begiak estalita izanen dituzte puzzle bat egiten duten bitartean. Puzzlea ordea, borobila da. MAPA MUNDI bat elkarrekin. Alde lauan honako mezu hau ageri da gazteleraz eta euskaraz.

MEZUA: **BABES SOZIALA**

MALETEN PROBA.

PROBLEMATIKA: **Zailtasunak gizarte-sare bat ez izateagatik.**

SARRERA: Gazte migratzaileak, hona heldutakoan, bakarrik egon ohi dira sarri. Familia eta lagunak atzean utzi dituzte eta ez dute babeserako gizarte-sarerik. Hori da erronka: ezin diozue arazoari laguntzarik gabe aurre egin. Ikusiko duzue zeinen garrantzitsua den besteen laguntza izatea, baita talde baten parte sentitzea ere.

PROBAREN GARAPENA:

Katez eta giltzarrapoz itxitako maleta bat ireki beharko dute, zeinaren barruan taldean osatzeko proba bat baitauka, *criptex* bat irekitzeko.

MEZUA: **BAKARRIK BAINO, HOBE TALDEAN.**

BISAREN PROBA.

PROBLEMATIKA: **Gazte migratzaileek enplegu duina lortzeko itxaron behar izaten duten denborari buruzko zailtasunak.**

SARRERA: Gazte migratzaileak, xede herrialdera heltzen direnean, izapide eta epe ugari egin behar diete aurre beren egoera erregulatzeko, erresidentzia baimena eta lana lortzeko... Proba hau gainditzeko pazientzia beharko duzue eta ezingo duzue hutsik egin.

PROBAREN GARAPENA:

Kutxa bat ireki ahal izateko, lan-bisa batean idatzitako zenbaki-kodea deszifratu beharko duzue. Oso zaila da zenbakia lortzea, beraz, lasai. Ekin talde osoaren elkarlanari, elkarrizketari eta negoziazioari. Hala, elkarrizketa eta negoziazioa gatazkak konpontzeko bide egokienak direla irudikatuko duzue.

MEZUA: LANERAKO SARBIDEA

AMAIERAKO GOGOETA

Talde guztiak bilduko ditugu, eta probaz proba lortutako mezuak elkarrekin ahoz gora irakurriko ditugu. Horrekin batera Lan Duinaren oinarritzko elementuak azalduko ditugu:

- Lanerako sarbidea. Gazteek, eta bereziki migratzaileek, lan-baldintza oneko lanak topatzeko arazoak dituzte.
- Lan-baldintzak. Gure lan-baldintzak arautzen dituzten legeei esker, lan jardunaldiak errespetatzea (8 ordu), haurren lanik eza, eta gutxieneko soldata ezartzea bermatuta dago.
- Gizarte elkarrizketa. (Bakarrik baino, hobe taldean). Gure lan-baldintzak hobetzen saiatzeko, ezinbestekoa da denak elkartzea, bakarrik ezinezkoa baita.
- Babes soziala. Denok behar dugu gizarte-arriskuen eta ziurgabetasunaren aurkako babesa, besteak beste, gaixotasunen, amatasunaren, desgaitasunen, lan-istripuen, langabeziaren eta zahartzaroaren ondoriozko lan-diru-sarrerarik ezaren, arreta medikoa jasotzeko aukerarik ezaren, familiaren edo gizartearen laguntza eskasaren, edo pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren ondoriozkoak.

Gogoeta hori bukatutakoan, talde irabazleari saria edo detaile bat eman diezaiokegu.